

# Trazabilitatea eta etiketatzea



178/2002 Araudiak (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/ALL/?uri=celex:32002R0178>) ezartzen du trazabilitate-sistemak derrigor ezarri behar direla, bermatzeko elikagai bat identifikatu eta horren jarraipena egin ahal izango dela ekoizpen-, eraldatze- eta banantze-etapa guztietan, kontsumitu bitartean.

1224/2009 Araudiak (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=celex:32009R1224>) ezartzen du trazabilitatea ezinbesteko lanabesa dela Arrantza Politika Erkideko arauak betetzeko.

Trazabilitatea da Elikagaien Segurtasunaren Arloko oinarrizko printzipioetako bat, eta ezinbestekoa da, elikagai-alerta baten aurrean, produktu baten historiala ezagutu eta kontsumitzaileen osasunaren babesa bermatzeko. Arrantza-sektorean trazabilitatea Elikagaien Segurtasunarekin ez ezik, arrantza-baliabideen kontrolarekin eta iraunkortasunarekin ere lotzen da.

Trazabilitatea da araudi hori betetzeko oinarrizko lanabesa, eta beharrezkoa da erregistro batzuk izatea elikagaien ekoizpen-kate osoan. Erregistro horiek partekatu egin behar dira elikakateko kate guztietan parte hartzen duten operatzaileen artean.

Informazio-trukea ahalbidetzeko, badira arrantzaren ekoizpen-kate osoan (harrapatzetik txikizkako salmentara bitartean) bete beharreko agiri batzuk.



Trazabilitatea arrainaren elikakate-faseetan

+ **ARRANTZAONTZIAN**

+ **LEHORRERATZEAN**

+ **JOMUGAKO LEHENENGO ESTABLEZIMENDUA**

+ **ELIKAGAI INDUSTRIA**

+ **TXIKIZKAKO SALMENTA**

---

**ELIKA** . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxe: 945 122 171 .  
Etiketatzeari buruzko informazio gehiago (<https://etiketatzea.elika.eus/arrantzako-produktuak/>)  
[berri@elika.eus](mailto:berri@elika.eus) (<mailto:berri@elika.eus>)